

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

5/2020 Mozioa, urtarrilaren 22koa, Arabako Lurralde Historikoan gertatutako okupa-fenomenoari buruzkoa

Arabako Batzar Nagusiek, 2020ko urtarrilaren 22an egindako osoko bilkuran, ondorengo mozioa onetsi zuten:

5/2020 Mozioa, urtarrilaren 22koa, Arabako Lurralde Historikoan gertatutako okupa-fenomenoari buruzkoa.

1. Arabako Batzar Nagusiek adierazi dute erabat gaitzesten dutela pertsona fisikoek edo horretarako titulu legitimorik ez duten kolektiboek herritarren etxebizitza partikularrak legez kanpo okupatzea.

2. Arabako Batzar Nagusiek, era berean, etxebizitza publikoak, eta orokorrean, titulartasun publikoko ondasun higiezinak errespetatzea eskatzen dute, eta uko egiten diote horiek legez kontra jabetzeari, interes publikoari jaramonik egin gabe eta ezarritako legezko prozeduretatik kanpo.

3. Arabako Batzar Nagusiek erakunde publiko guztiei eskatzen diete kasu bakoitzean bi-dezkoak diren neurri juridikoak hartzen jarrai dezatela, legez kontra okupatu diren titulartasun publikoko ondasun higiezinen jabetza berreskuratzeko.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urtarrilaren 22a

Presidente

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA